

"Habeas Corpus" eta euskaldunak

Deia, 1983-06-30.

Gazteizko lurretan Nafarroako errege zen Santxo VI Azkarrenaren erregegoan (Sancho VI el Sabio) eta honen ekimenez Vitoria fundatu zela 800 urte bete ziren 1981ean. Efemeride gogoangarri hau Arabako, eta gaur ofizialki Euskal Herriko, hiriburuan ospatu zen irailaren 21-26 bitartean, eta Jose Angel Cuerda alkatea buru zela, "I Congreso de Estudios Históricos".

Ospakizun eder honen ondorio bezala argitaratu da: *Vitoria en la Edad Media*.

Erdi Aroz ezagunenak diren historialarien eta ikerlarien hamalau txosten eta hamahiru komunikapen jasotzen ditu. Horien artean bada *Odon Apraiz* jaunak idatzi duen lan argigarri bat. "El 'occisus' de los Fueros Vascos de origen navarro"; hemen aipatzen dituen gaien artean batek ingelesen "habeas corpus" ukitzen du.

Gure artean instituzio hau erreferentzi bezala sarri erabiltzen dugunez gero, eta gaur bertan bereziki, merezi du irazkina.

Gaztela eta Nafarroa arteko mugaz paktua egin zen 1179an; Nafarroako Santxo Azkarra ez zen, hala ere, itun honen ondorioaz gehiegi fidatzen eta erresumaren defentsarako aliatuak bilatu zituen Ingalterra eta Marokko. Honetarako errege nafarrak bere alaba Berengela Ingalterrako errege Rikardo I, "Corazón de León"ekin ezkontzea lortu zuen 1191ean. Kontuan izan behar dugu garai hartan Normandiatik Baionararteko lurak ingelesen mende zeudela. Laster hil zen, ordea, Santxo Azkarra, (1194), eta berehala ere, zoritxarrez, Rikardo I, (1199). Honen ordezkoko bere anaia "Juan Sin Tierras" geratu zen, baina galdu zuen Nafarroak hain estrategia egokiaz hedatu zitzaion defentsaren garantia.

"Juan Sin Tierras"ek ere bazuen kezkarik bere aldetik: Botere herrikoiaren alde zeudenak herriaren eta nazionalitateen eskubideak babesten zituen delako *Carta Magna* onartzera behartu zuten erregea 1215ean. Eskubide horien artean aurkitzen zen bizilekuaren ukiezintasuna: ingles baten etxean sar zitekeen haizea eta euria, baina ez legez kontrako erregearen ordezkariarik.

Printzipio hau da "habeas corpus" bezala ezagutzen dena.

Dagoeneko Nafarroan, hamabigarrengoa, udal-fueroak babesten zituen eskubide beraz ari da. Hara Santxo Azkarrak Vitoriari 1181ean aitortua: "Ez da zuen etxeetara ez Merino ez Sayonik sartuko, eta indarrez sartzea gertatuko balitz, hantxe bertan hila izan dadila, eta ez zaizue heriotza hori demandatuko". Berdintsu diote Donostiako, (1150-1194), eta Laguardia, Antoñana, Labraz eta Labastidakoeke ere, denak errege nafarraren garantipean.

"Argi ageri da hemen –dio Odon Apraiz jauna– euskaldunak eta ingelesak hamabi eta hamairugarrenean zentzu juridiko bera zutela".